

XIX. mendean ligatzeko gida

BONHAMS



Raimundo Madrazo Garretaren (1841-1920) *Maite jolasa* margolanean, bikotearen alboan xexteroa ageri da, ligatzeko teknikak fintzera bultzatzen zuen pertsonaia.

NEW PLYMOUTH (ZEELANDA BERRIA), 1891. *Taranaki Herald* egunkariak begien bidez ligatzeko gida modukoa argitaratu zuen “Eye Flirtation” (begien bidezko maite jolasa) izenburupean.

Zeelanda Berria 1947. urtera arte ez zen ofizialki Commonwealthen sartu, baina XIX. mende amaieran Ingalaterrako monarka zen uharterko estatu buru. Viktoria erreginarenean erreginaldi betean, haren moral estu eta zorrotzaren itzala antipodetaraino ere iristen zen, beraz. Zaila zen ezkontzeko adinean zeuden emakumeak bakarrik topatzea, ama, beste senitartekoren bat edo neskamea eraman ohi baitzuten alboan, xexteroa edo karabina, alegia. Horrenbestez, bikotekideen arteko komunikazio arina lortzeko trabak gainditu behar ziren, eta bestelako bideak asmatu.

Esaterako, gezurrezko orinen bidez mezuak igortzeko sistema garatu zuten: orina eskuin masailean jarrita, ezkontuta zegoela adierazten zuen emakumeak; ezker masailekoak ezkontzeko hitza emana zuela esan nahi zuen; ahoaren ondoan jarrita, aldiz, ligatzeko prest zegoela... Eta haizemaile edo abanikoekin ere mezuak igor zitezkeen: abanikoa masailean jartzeak tristezia adierazten zuen; ahoa estaliz gero, gerturatze eskatzen zitzaion ezkon-nahiarri, eta haizemailea begietara eramanez gero, alde egiteko. Baina orinak eta

abanikoak modaz pasatzen ari ziren, eta gainera komunikazioa aldebakarrakoa izan ohi zen, gizonezkoek askoz gutxiago erabiltzen baitzituzten “komunikabide” horiek. Begiak, aldiz, gizaki guztiek erabil zitzaizketen.

Hona hemen Zeelanda Berriko egunkariak jasotako kodeko zenbait mezu:

- Eskuineko begia kliskatu: maite zaitut.
- Ezkerreko begia kliskatu: gorroto dizut.
- Bi begiak kliskatu: bai.
- Eskuineko begia bitan kliskatu: ezkontzeko hitz emanda nago.
- Ezkerreko begia bitan kliskatu: ezkontuta nago.
- Bekainak jaso: musu emadazu.
- Ezkerreko begia poliki itxi: saia zaitez ni maitatzen.
- Eskuineko begia poliki itxi: ederra zara.
- Eskuineko erakuslea eskuineko begian ipini: maite al nauzu?
- Eskuineko hatz txikia eskuineko begian ipini: lotsagabe hori!

Gauzak asko aldatu dira ordutik. Xexteriorik ez dugu izaten itsatsita eta telefono mugikorrek abanikoak ordezkatu dituzte. Baina begirunerik ez dutenak oraindik badira; Beldur Barik elkarteak ligatzeko beste gida bat argitaratu berri du: *Errespetuz ligatzeko dekalogo*. Interneten aurkituko duzu. ■



Arrastoak

2013an Troia induskatuko dute berriro

ARKEOLOGO eta bestelako zientzialarien talde bat Troia industeko espedizioa prestatzen ari da. Wisconsin-Madison unibertsitateko William Aylward buru duen taldea 2013an hasiko da aztarnategian lanean.

Heinrich Schliemanek 1870ean aurkitu zituen hiri mitikoaren arrastoak, eta arkeologia modernoaren oinarriak ezarri zituen azterketa sakona egin zuen. Handik aurrera eta gaur arte indusketa asko egin dira bertan, lanek 50 urteko etenaldia izan zuten arren (1938tik 1988ra). Baina oraindik asko dago aztertzeko. 4.500 urtetan, Historiaurretik Erdi Arora, hamar hiri izan ziren eremu berean, lur azpiko hamar geruzatan gorde direnak.

Espedizioko arduradunen esanetan, ia 100 urteko lanen ondoren aztarnategiaren bostena besterik ez da induskatu. ■



ARQUEO



TOURALIS

Goian Homeroren Troiaren irudi birtuala (K.a. 1700-1250). Azpian, egungo aztarnategia.